



~~~~~  
**La Glorieta  
egokitzea eta  
ingurumen  
aldetik  
berreskuratzea**

/5. orrialdea

~~~~~  
**Gizarte
Zerbitzuen Gida
bat sortzea**

/2. orrialdea

~~~~~  
**Udal  
kiroldegiko  
obrak hasi dira**

/3. orrialdea

~~~~~  
**Ikastolak
dagoeneko
badauka kirol
pista estalia**

/4. orrialdea

~~~~~  
**Parrokia  
Batzordea: balio  
soziala duen  
lana**

/6. orrialdea

## Editoriala

### *Muskiz, herri solidarioa*

Herri honetaz harro nago, duen ehun asoziatiboaz, dituen komertzioez eta enpresez, eta Muskiz udalerrri hobea egiten lagundu diguten pertsoenez.

Asko dira herri hau hobetzen jarraitzeko egin ditugun ekintzak. Horietako bakoitzaren gaineko gogoeta egitea gustatuko litzaidake, baina gaur udalerrri honetako pertsonen elkartasuna nabarmendu nahi dut.

Gogoan ditut aurtengo martxoaren 3an eta 4an gure mendietan izandako sute tamalgarriak. Lehenengo orduak gogorak izan ziren: ez genekien pertsonaren bat harrapatuta egon zitekeen; sua etxebizitzetatik gertu zegoen; keak ez zuen ikusten uzten; airea arnastea zaila zen... baina, hala ere, muskiztarrek euren elkartasuna erakutsi zuten.

“Gaur, udalerrri honetako pertsonen elkartasuna nabarmendu nahi dut

Herri baten jokaera lehen lerrotik ikusteko aukera izan nuen. Elkartasuna, kolaborazioa, laguntza, bokatak, izarak, gaua pasatzeko eskaintzak... ikusi nituen. Une horietan, muskiztarra izateaz harro egon nintzen. Gau horretan, gu guztion parte solidarioena atera zen, bizilagunen artean eta larrialdi zerbitzuei laguntza emanez.

Bereziki eskertu nahi dizuet une zailetan lagundu izana, eta egoera kontrolatzeko SOS deia jaso zuten pertsona guztien operatiboaren partez ere eskerak eman nahi dizkizuet.

**Borja Liaño Abarrategi**  
Muskizko alkatea



## *Muskizko Gizarte Zerbitzuen Gida berria*

Muskizko Udalak, Gizarte Ekintza Sailarekin batera, udalerrriak herritarren esku dituen gizarte zerbitzu guztien gida bat sortu du. Azpimarratu beharra dago Udalak pertsona guztiak gizarteratzera zuzentzen duela bere arreta, adin guztietako pertsonen berdintasuna eta ekitatea, sexu dibertsitatea, kultur aniztasuna, irisgarritasuna eta komunitateko parte-hartzea aintzat hartuta. Udal Gizarte Zerbitzuek langile propioak eta emakumeen, gizarteratzearen, adineko pertsonen eta autonomiaren sustapenerako sektore ezberdinetan espezializatutako enpresa sarea du. Gainera, diziplina

anitzeko langileak ditu, hala nola gizarte langileak, erizaina, administrari laguntzaileak, gizarte hezitzaileak, psikologoak, abokatuak, etxez etxeko laguntzaileak, geriatría laguntzaileak, kolektibitate eta garraio laguntzaileak, sukaldariak, gidariak, animazio soziokulturaleko eta terapia okupazionalerako teknikariak, adineko pertsonentzako jarduerak, mantentze-lanetako langileak eta atezaintza. Gida berri honen helburua da informazio hau guztia udalerriko pertsona guztiei helaraztea, ezagutzeko eta ongi erabiltzeko, hori baita Muskiz Lagunkoia-Amigable proiektuaren xedeetako bat.



## *Burdin Mendien Bide Berdea, kolaborazio proiektua*

Muskizko Udalak Burdin Mendien Bide Berdearen lankidetzaz hitzarmenaren luzapena sinatu du, eskualdeko garapen ekonomikoa, soziala eta ingurumenaren arlokoa sustatzen duten proiektu berriak sortzeko asmoz. Izan ere, modu horretan, kirolaren eta aisialdi osasungarriaren bidez, jarduera fisikoa sustatzen duen elementu bihurtuko da. 2019an hainbat jarduera egitea proposatu da: bide seinaleztapena hobetzea; “Igandeak bidean zehar” deituriko paseo osasungarriak egitea; Ondare Irekia irteera antolatzea, parte-hartzaileei meatzetako bizipenak ezagutzeko aukera emateko,

eraikin adierazgarriak bisita gidatuen bidez ikusiz; Galdamesko La Aceña trenbide-geltoki zaharraren eraikina jendearentzat irekitzea asteburuetan, uztailetik irailera. Gainera, Megaduatloien bigarren edizioa egingo da; iaz, 400 parte-hartzaile izan zituen. Azaroaren 3an, igandean, egitea dago aurreikusita.

### **Kontagailuetako datuak**

2018an, guztira, 100.000 igarotze baino gehiago zenbatu ziren Bide Berdean. Beraz, hilean 9.000 bisita inguru dira, batez beste.





## Udal kiroldegiko instalazioak hobetzeko lanak hasi dira

**M**uskizko Udalak hasiera eman die udal kiroldegiko instalazioak hobetzeko obrei. Lan horien bidez, bizilagunek zein bisitariak gozatzeko espazio bat izango du udalerrriak, hauekin osatuta: bi igerileku, txikienentzako jolas eremu bat, lorategi eremu bat, aldagelak eta 3 tenis pista eta 3 padel pista estali. Lanak gutxi gorabehera hilabeteko epean amaitzea aurreikusten da.

Ur-eremuan bi igerileku egongo dira. Ume txikienentzako plisti-plasta gunea egongo da, 51 m<sup>2</sup> ingurukoa, biribila, eta 0,30 cm-tik 0,50 cm-rainoko sakonera izango duena. Gainera, txikiak ur-jolaserako eremua izango dute igerilekuaren ondoan, zurrustak eta ura botako duen bale moduko batekin, jolasteko eta uraz gozatzeko.

Helduentzako igerilekuak 254 m<sup>2</sup> izango ditu, forma irregularra, eta 0,30 cm-tik 1,20 cm-rainoko sakonera. Ontzi honetan jacuzzia, lunbarrentzako hidromasaje zurrustak, lepoarentzako ur-txorrotak edo esertzeko eremu bat egongo dira. 127 pertsona inguruko edukiera izango du.

Bi igerilekuen inguruan, lorategia aprobetxatuz, solariuma edo deskantsatzeko eremu bat egongo da, eguzkia hartzeko edo atsedean hartzeko. Gainera, egin beharre-

koen artean, soilik igerilekuetara doazen pertsonentzat diren aldagelak egongo dira, beharrezko zerbitzu guztiekin.

### 3 padel pista egitea

Jolas eremuaz gain, kirol eremu bat ere egongo da; 3 tenis pista –egun existitzen direnak– eta beste 3 padel pista izango ditu, zeinak tenis pistetako batean egingo diren, hura desagerraraziz. Beraz, erabiltzaileek 3 tenis pista eta 3 padel pista izango dituzte erabilgarri. Guztiak estaliak izango dira, euria egiten duen egunetan ere erabili ahal izateko, eta argiztapen egokia izango dute.



## El Malecón futbol zelaiko tribunaren estalkia berritzea

Muskizko Udalak El Malecón futbol zelaiko tribunaren estalkia berrituko du udan, 35.000 euro inguruko aurrekontuarekin. Egun estalkiak dituen xaffa metalikoak hondatuta daude, zaharrak direlako. Beraz, Udalak aldatu egingo ditu, besteak beste, haizeak eragindako ezbehar meteorologikoko arriskuak direla-eta.

Horretarako, xaffa fin berri bat jarriko da, eraikina irekia denez isolatu behar ez dena, Eusko Jaurlaritzako joko eta ikuskizun arloak emandako segurtasun gomendioak betez. Berritzea aurreikusitako epeak J.D. Somorrosto klubarekin zehaztuko dira, baina futbol denboraldia amaitzean, udan, hastea aurreikusten da.

Udan egingo diren estalkia berritzeko lanak gehitu behar zaizkie, azken urteetan, El Malecón zelaiko kirol-instalazioak eta horietako irisgarritasuna hobetzeko egin diren lanak. Ildo horretan, zelai artifiziala berritu da, belar naturaleko zelaiaren ureztatzeko-sistema aldatu da, eta zelaietarako sarbideak hobetu dira. Halaber, aldagelak berritu dira, eta, horietan, segurtasunerako babes-gailuak jarri eta airea ateratzeko eta aireztapenerako sistemak ezarri dira.



## Autonomiako parkearen zoladura berritzea

Muskizko Udalak Autonomiako jolas parkearen zoladura aldatzeari ekin dio, 14.400 euroko aurrekontuarekin. Lana 467 m<sup>2</sup>-ko azaleraren zoladura jarraitua konpontzean datza.



## La Rabuda auzoko bidea asfaltatzea

Muskizko Udalak, udalerriko bide-segurtasuna hobetzeko asmoz, La Rabuda auzoko bidea berritu du, guztira, 40.000 euroko aurrekontuarekin. Euri-urak drainatzeko sistema bat jarri dute, eta argiztapena ere hobetu dute. Lanak CONSAUDI udalerriko enpresak egin ditu.



## Moto Club Ivan Lópezen egoitza eraberritzea

Uralita estalkia erauzi egin da; laminatua hornitu eta jarri da; ura iragazteko babesa ipini da; erretanak hornitu eta kokatu dira, eta kanpoaldea eta barrualdea margotu dira. Gainera, sarreran sarraila bikoitza duen ate metalikoa eta leiho bat jarri dira.



## Memerea kalea urbanizatzea

Muskizko Udala, udalerriko auzoen irisgarritasuna hobetzeko xedez, Memerea kalea berritzen eta urbanizatzen ari da, guztira, 120.000 euro inguruko aurrekontuarekin. Duela hilabete batzuk hasi ziren lanetan, batez ere, jarduera nagusi hauek egin dituzte: lurperatutako instalazioak berritu –horien egoera kaxkarra dela eta–, saneamendu eta euri-uren drainatze sistema hobetu, eta bideen zoladura eta argiteria publikoa hobetu.

Beste ekintza garrantzitsu bat instalatutako sifoi bat kentzea izan da, zonaldean arazoak sortzen baitzituen. Era berean, urharguneak eta bizilagunen etxebizitzetako sarbideak hobetu dira. Lanak udalerriko CONSAUDI enpresak egin ditu.



## Ikastolak kirol pista estalia du

Muskizko Ikastolak badu kirol pista estalia. Ekintza horren bidez, Muskizko Udalak erantzuna eman die ikasleek eguraldi txarretik babestutako jolas eta jarduera anitzetarako espazio bat izan zezaten Ikastolak egindako eskariei. Horrez gain, eskola orduetatik kanpo erabiltzeko aisialdi eremu bat sortu da, ekimen ezberdinak egiteko. Beraz, erabilera bikoitza duen eremua sortu da. Estalkiaren egiturak 1.325 m<sup>2</sup>-ko azalera du, eta ikastolaren ildo arkitektonikoa jarraitzen du. Gainera, argiztatzeko propioa du, eta epe luzearako eraginkortasuna lehenetsi da, eraikuntza jasangarria izateko. Egitura metalikoak xafla metalikoko sandwich paneleko estalki bati eusten dio; % 15eko zeharrargiko polikarbonatoa du, eta argia iragazten duten fatxada itxierak ditu, horrela, gunea eguzki-izpi zuzenetatik babesten da.





# La Glorieta egokitzea eta ingurumen aldetik berreskuratzea

**M**uskizko Udalak La Glorieta egokitzeari eta ingurumen aldetik berreskuratzeari ekin dio, 157.000 euroko aurrekontuarekin. Proiektuaren abiapuntu dira Udalak aurretik egindako ekintzak, eta, udalerriko 27.100 metro koadroko eremu horri dagokionez, bizilagunek zer kezka eta interes dituzten ezagutzeko egin zen herritarren parte-hartze prozesua.

Egun, eremuak zonaldeko basoetako espezieen milaka landaretxo ditu, 2005. urtean La Glorietan egondako sutearen ostean. Horregatik, ekimen hauek proposatu dituzte: udalerrian biodibertsitatea handitzea, bizi-kalitatea murrizten duten espezie exotikoen inbasioak ekiditea, fauna eta flora babestea, suteak saihestea, eta oinezkoentzat paseatzeko eta naturarekin kontaktuan egoteko erabilera publikoko eremu bat egitea.

Sarbideari dagokionez, hainbat ekimen egingo dira oinezkoek erabil ditzaketen hiru bideak identifikatzeko. Horretarako, sarrera nagusian, aparkaleku ondoan dagoen horretan, ibilbideak ikusteko ohol bat egingo da. Bide eta bidexken sarean egokitzapenak egin beharko dira, hala nola garbiketa orokorra, seinalezatzea, baita ura ateratzeko elementuak eta altzariak jartzea ere.

## Segurtasun zerrenda

Berreskuratzeaz gainera, puntu garrantzitsuenetako bat eremu hau inguratzen duten etxebizitzetarako segurtasun zerrenda da. Hori dela eta, gas gordailuen eremuan sastrakak kentzeko lan sakona egingo da. La Glorieta hegoaldean, Akazieta kalean, hirigunearekin elkartzen da natura eremua, eta, horrenbestez, eremua mugatzen duen hesia jarriko da.



## Udal pilotalekuak aldagela berriak izango ditu

Muskizko Udalak udal pilotalekuko aldagelak berrituko ditu udan. Pilotalekua kirola egiteko erabiltzen dute bizilagunek, baina erabilera sozial eta kulturala ere badu. Gobernu taldearen asmoa da denboraren poderioz nariatutako instalazio guztiak berritzea, egun ez baitituzte erabiltzaileen beharrak betetzen. Hartara, pilotalekua baldintzarik onenetan egingo da urtean zehar egiten diren ekintzetan erabiltzeko.

Eraberritzeari esker, 30 urte baino gehiago dituzten instalazioak modernizatuko dira. Obraren aurrekontu osoa 130.000 eurokoa da, eta aldagelak eta komun publikoak egokitu, moldatu eta berrituko dira, eta mugikortasun murriztua duten pertsonentzat egokitutako eta irisgarria den komun bat egingo da. Aldageletan, erabiltzaileentzako armairuak jarriko dira; garbiketa produktu eta materialentzat biltegi txiki batentzako leku berria bilatuko da, eta egurrezko arotzeriaren ordean, PVCz edo aluminioz egindakoak jarriko dira. Instalazio elektrikoa eta galdara ere berregituratuko dira.

Hirugarrenei eragozpenik ez sortzeko, lanak udan hastea dago aurreikusita, San Juan jaien ostean, hain zuzen ere; izan ere, eraikina kirolerarako nahiz udal jarduerak eta ekimenak egiteko erabiltzen da. Hala ere, 3.200 euroko inbertsioa egingo da udal frontoiko kantxako argiztapena hobetzeko; hartara, gaur egun argi gutxiegi duten gunehorietako argitasuna hobetuko da.



MUSKIZ

AGENDA

**APIRILAK 13**  
MEATZARI ARETOA

**BA**En udaberriko kontzertua  
Bizkaiko Abesbatzen Elkarte

**APIRILAK 27**  
MEATZARI ARETOA

**“Sator jator”**  
Umeentzako antzerki ikuskizuna euskaraz

**MAIATZAK 4**  
MEATZARI ARETOA

**“Burdina-Hierro”**  
Dantza emankizunaren estreinaldia

**MAIATZAK 8**  
MEATZARI ARETOA

**“Indalo”**  
Txotxongiloen musika obra, ikasleentzat

**MAIATZAK 25**  
MEATZARI ARETOA

**Antzerkia**  
Ongintzako emanaldia

**MAIATZAK 29**  
MEATZARI ARETOA

**Bertso topaketak**  
Bertsoak ikasleekin

**EKAINAREN**  
**21etik 25era**  
**San Juan**  
**jaiak**



## Elkarrizketa



### Udalerriaren bizitzan, balio sozial handia duen lana

Muskizko Parrokia Batzordeak udalerrian garrantzi handia duen lana egiten du, nahiz eta askotan ezezaguna den. Urteetan, bizilagun ugari hartu du parte organo horretan; herriko parrokiatan sortzen diren kontuak kudeatzea du xede.

**G/ Zein da Parrokia Batzordearen lana eta funtzioa?**

*E/ Toki mailan, hau da, udalerriko parrokiatan sortzen diren kontuak kudeatzeko ardura duen organoa da. Halaber, alboko udalerrietako beste kontseiluekiko lotura lana egiten du (Trapagaran, Ortuella eta Abanto-Zierbena), elkarrekin Meatzaldeko Pastoral Barrutia deitutakoa osatzen baitugu, zeinak taldean egindako lana indartu nahi duen.*

**G/ Zein da Parrokia Batzordea sortzearen helburua?**

*E/ Helburua da komunitatea bera izatea bere funtzionamendua erregulatu eta antolatzen duena.*

*“Herriko pertsona askok hartzen dute parte gure taldeetan*

**G/ Zein talde edo pertsonak osatzen dute Batzorde hori?**

*E/ Gure komunitateko errealitateen ordezkari banak osatzen du Batzordea; gaur egun, hauek dira: Somorrostroko Lanbide Heziketako Zentroko ordezkariak, Sal y Luz-eko hiru taldeetako ordezkariak, Eskaut Taldea, Katekesia, Cáritas, Liturgia, Ekonomia, Presentación de Mariako erlijiosoak, Parrokia Komunitatearen ordezkaria, Pobeñako Komunitatearen ordezkaria, Pastoral barrutiko bi apaizak eta eremuan laguntzen digun pastoralta agindua duen laiko bat.*

**G/ Zuen ustez, Muskizen ezaguna al da egiten duzuen lana?**

*E/ Tokiko Batzordearen lana, agian, ez da herri mailan ezaguna, komunitate barrura begirako antolaketa egitura delako. Hala ere, komunitate kristaua finkatua dago herrian. Urteetan, asko dira gure taldeetan edo gure ekintza ezberdinetan parte hartu duten pertsonak: haurrentzako katekesia,*

*eskaut taldea, Cáritaseko programak, adinekoen taldeak, Sal y Luz, fede ospakizunak... Herritar bezala, komunitateko pertsona asko presente dago herriko bizitzan: kirol jardueretan, jarduera kulturaletan, ludikoetan, aldarrikatzailetan, sozialetan...*

**G/ Zein zailtasun dituzue udalerrian zuen lana egiteko?**

*E/ Komunitate kristaua osatzen dugunon kopuruak behera egin du, eta denbora luze horren oinarri izan diren pertsonak zahartzen doaz. Horrek erreferentziarako zailtasuna dakar, eta zaildu egiten du dinamismoa eta jarduera mantentzea.*

**G/ Zein laguntza mota ematen diezue Muskizko bizilagunei?**

*E/ Nola ez, sakramentuaren inguruko laguntza (ezkontzak, bataioak, jaunartzeak...). Komunitate gisa, udalerriko hainbat elkartetan presentzia daukagu, eta, arlo sozialean, Cáritasen programen bidez.*

## Biblioterapia, sendatzen duen irakurketa



Muskizko osasun zentroak, udal liburutegiarekin batera, txikien arteko indarkeriazko jokabideak, elikadura arazoak edo haserrealdiak prebenitzeko biblioterapia proiektu berritzaile bat jarri du martxan.

Osasun zentzoko pediatriako profesionalak eskaintzen dute programa, eta inteligentzia emozionalean hezten laguntzen dute, haurren jokabidea hobetzen laguntzeko, eta, horrenbestez, jokabide batzuk prebenitu ahal izateko. Tailerrek gurasoei balio diete antsietatea eta indarkeriazko jokabideak ezagutu eta prebenitzeko, emozioak kudeatzen ikasteko, eta adin txikikoekin doluari nola aurre egin ikasteko. Saiotan bideo edo Power Pointen bidez azaldutako guztia Liburutegian dauden liburuetan dago jasota, gurasoek haurrekin etxean landu ahal izateko.